



## FUNTZIONAMENDU ARAUAK Ospitalizazioko Unitatea – ORL

### Dei egiteko beharrea bazaude, erabili gelako txirrria

### MEDIKUAREN BISITA / FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA

- Eskatu laguntza behar duzun guztietan.
- Egunero pijama edo ohe-atorra jasoko duzu. Norberaren garbitasunerako, bainugela bat dago logelan, dutxa eta guzti.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Lagundu ospitalean ISILTASUNARI eusten.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurrunak edo lurgabeak.

### EBAKUNTZA EGIN BEHAR IZANEZ GERO, JAKIN BEHARREKOA



- Sendagile hauek egingo dizute ebakuntza: \_\_\_\_\_
- Interbentzioaren ondoren: Zirujauaren informazioa emango dizu 2. solairuko operazio-geletako sarreran.
- Interbentzioa urgentea bada: 1. solairuko operazio-gelako sarreran emango da informazioa.
- Anestesia ondoko bizkorketa 2. solairuan egingo da (ABU).

### MEDIKUAREN IKUSTALDIA



- Igandean izan ezik, egunero. 10:15etik 12:00etara, gutxi gorabehera.
- Bisita hasi baino lehen MEGAFONIAZ DEITUKO DIZUETE. Bisita bukatu arte, laguntzaileek unitatetik kanpo itxaron behar dute, igogailuen atarian.
- Bisitan zehar medikuak zure egoeraren berri emango du.

### FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIO MEDIKOA

- Egunero: Medikua bisita bukatzen denean, Unitateko ORLko sendaketa-gelan.

### OTORDUAK



9:30ean Gosaria  
13:30ean Bazkaria  
17:30ean Merienda  
20:30ean Afaria

### BISITAK

- 14:00etatik 21:00etara.
- **Pazienteko 2 pertsona, gehienez.**  
Nahi izanez gero, senide bat zurekin 24 orduz egon daiteke

### BESTE GAUZA JAKINGARRI BATZUK



Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



Ospitalean sartu izanaren **egiaztagiria** behe solairuko harreran emango dizute (datu gehiago behar baduzu, jar zaitetz harremanetan pazientearen ardura duen medikuarekin).



### **TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000**

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000882.

**Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.**



**Telebista-zerbitzua** ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungintze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora. Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke.



### **KAFETEGIA Orduategia: 8:00etatik 22:00etara.**

Kafetegia erdisotoan dago.

Solairu batzuetan kafe eta freskagarri makinak daude, igogailuak dauden hallean, hain zuzen



### **ALTA hartzeko egunean,** gela arratseko 15:00ak baino lehen utzi beharko duzu.

Ospitalean ISILTASUNA beharrezkoa dela gogorazten da.

Altaren egunean komenigarria da gela uztea txosten-medikoa jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.

### **Laguntza erlijiosa eta espiritual:**

- Ospitaleak zerbitzu erlijioso katolikoa du Kapean (1. solairuan). Harrera erlijiosoaren ordutegia: egunero 8:30etik 20:30era. Mezen ordutegia: Igande eta jaiegunetan 11:00etan.
- Beste erlijio batzuetako pazientek eta senideek laguntza eskatu diezaizkete euren arimako maisuari.

**PAZIENTEAREN ZAKO ETA ERABILTZAILAREN ZAKO ARRETA ZERBITZUA (PEAZ).** Zerbitzu horren beharra izanez gero, Unitateko gainbegiralearen bidez eska dezakezu. **Ordutegia:**- Asteleheneetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara.